



GALARDI UDAL HAURRES- KOLA

2025/2026 IKASTURTEA

Extremadura kalea, 6

20.140 ANDOAIN

☎ 943 300 655

www.andoain.eus

galardi@andoain.eus



ANDOAINGO UDALA

ZER ESKAITZEN DUGU?



0-2 urte bitarteko haurren heziketaz arduratzen gara, eta gure helburu nagusia haurren **garapen osoa modu integralean** bultzatzea da. Hau da, haurraren garapen fisikoa, intelektuala, afektiboa eta soziala garatzea eta sendotzea.

Gure lan proiektuaren parte garrantzitsua **familia** da. Famili eta hezitzaileen arteko komunikazio eta elkarlana idatziz sustatzen dugu eguneroko kuadernoan. Horretaz gain, ikasturtean zehar, familiekin beharrezko hartueman zuzenak mantentzen ditugu.

Haurra, **jolasaren bidez** eta inguruko elementu fisikoak eta sozialak ikertuz hasten da bere burua eta bere ingurumenaren errealitatea ezagutzen. Haurraren jakin-mina eta interesak piztuz

bere gertuko ingurunea zabaltzen doa. Horregatik, jolasari eta jarduera libreari eskaintzen diogu denbora gehien.

Hizkuntzaren, mugimenduaren, ukimenaren, begiradaren eta abarren bidez **komunikazioa** sortu eta bultzatzen dugu. Horrek lagunduko dio haurrari bere buruaz jabetzen eta bere buruaren irudi ona eskuratzen.

Haurreskolak **euskara** du bere hizkuntza, gurasoek dituzten izaera kulturalak errespetatzen ditugularik. Haurreskolaren proiektua pertsonen arteko berdintasunari begira dago, eta aurreiritzi guztiak baztertuz modu inklusiboan hartzen ditugu.

Gure proiektua gauzatzeko jolaserako **gela handiak eta**



argitsuak dauzkagu. Lotarako gelak: txikiak sehasketan, koxkortuak hamaketan. Terraiza handiak kaleko ekintzaz gozatzeko.

Psikomotrizitate saioak eskaintzen ditugu, jolas eta aktibitate bitartez, alde batetik haurren garapenean eta heldutasunean laguntzen dutenak, eta bestetik, bere emozio eta nahiak adierazteko aukera ematen dutenak.

Bere ongizate, elikadura, higiena osasun ohiturak barneratzen lagunduz, bigarren ikasturte

amaieran, haurrentzat **autonomia lantzen** dugu, bai bere buruarekiko erlazioan baita besteekiko harremanetan ere. Une egokia izan daiteke esfinterraren kontrolari ekiteko.

Galardi Haurreskolako proiektua aurrera eramateko **hezitzaile profesional** eta esperientzi luzeko **taldea** gara. Haurreskolako hezkuntau proiektu propioarekin.

JANGELA

Sukalde propioa eta janari ekologikoa.



1. MENUA · IRAILA-URTARRILA

| Astelehena | Asteartea | Asteazkena | Osteguna | Ostirala |
|--|--|--|--|--|
| <ul style="list-style-type: none">• Pura: barazkiak + oilaskoa• Yogurra | <ul style="list-style-type: none">• Pura: barazkiak + arraina• Yogurra | <ul style="list-style-type: none">• Pura: barazkiak + arrautza• Yogurra | <ul style="list-style-type: none">• Pura: barazkiak + haragia• Yogurra | <ul style="list-style-type: none">• Pura: barazkiak + arraina• Yogurra |
| <ul style="list-style-type: none">• Pura• Arraina• Yogurra | <ul style="list-style-type: none">• Arroza tomatearekin• Oilaskoa• Fruta | <ul style="list-style-type: none">• Dilistak• Tortilla• Gazta | <ul style="list-style-type: none">• Illarrak• Hamburgesa tomatearekin• Yogurra | <ul style="list-style-type: none">• Makarroiak txorizoarekin• San jakobok• Zukua |

Txikien menua

Jangelako menua

2. MENUA · OTSAILA-APIRILA

| Astelehena | Asteartea | Asteazkena | Osteguna | Ostirala |
|---|---|--|--|--|
| <ul style="list-style-type: none">• Pura: barazkiak + oilaskoa• Yogurra | <ul style="list-style-type: none">• Pura: barazkiak + arrautza• Yogurra | <ul style="list-style-type: none">• Pura: barazkiak + arraina• Yogurra | <ul style="list-style-type: none">• Pura: barazkiak + haragia• Yogurra | <ul style="list-style-type: none">• Pura: barazkiak + arraina• Yogurra |
| <ul style="list-style-type: none">• Kalabaza pura• Aarroza 3 delizia erara• Yogurra | <ul style="list-style-type: none">• Garbantzuk• Tortilla• Fruta | <ul style="list-style-type: none">• Porrupatatak• Arraina• Gazta | <ul style="list-style-type: none">• Barazkiak• Xolomoa piperrekin• Yogurra | <ul style="list-style-type: none">• Tomate entsalada• Makarroiak boloñesa erara• Zukua |

Txikien menua

Jangelako menua



3. MENUA · MAIATZA-UZTAILA

| Astelehena | Asteartea | Asteazkena | Osteguna | Ostirala |
|--|--|---|---|---|
| <ul style="list-style-type: none"> • Purrea: barazkiak + oilaskoa • Yogurra | <ul style="list-style-type: none"> • Purrea: barazkiak + arraina • Yogurra | <ul style="list-style-type: none"> • Purrea: barazkiak + arrautza • Yogurra | <ul style="list-style-type: none"> • Purrea: barazkiak + haragia • Yogurra | <ul style="list-style-type: none"> • Purrea: barazkiak + arraina • Yogurra |
| <ul style="list-style-type: none"> • Arroza entsalada • Arraina • Yogurra | <ul style="list-style-type: none"> • Barazkiak • Oilaskoa • Fruta | <ul style="list-style-type: none"> • Tomate entsalada • Tortilla • Gazta | <ul style="list-style-type: none"> • Pistoa • Haragi gixatua • Yogurra | <ul style="list-style-type: none"> • Makarroiak tomatearekin • Arraina • Zukua |

Txikien menua

Jangelako menua



EGOKI- TZAPENA

Haurreskolara datorren haurrak egokitzapen prozesua egin behar du. Haurra eskolan hasten denean dena zeharo ezezaguna egiten zaio, baina egokitzapen hau ez dute haurrek bakarrik egiten, familiek eta hezitzaileok ere egin behar dugu.

- Haur bakoitzaren erritmoa errespetatzeari garrantzi handia ematen diogu.
- Hezitzaileekin segurtasuna, konfidantza eta lotura afektibo egonkorra lortu behar dugu.
- Haurraren atxikimendua errespetatuz erreferentzizko hezitzailea ziurtatzen saiatzen gara.
- Famili eta hezitzaileen arteko elkarlana eta komunikazioa sustatzea oinarritzkoa dela deritzogu.

HAURRES- KOLAKO FUNTZIONA- MENDURAKO IRIZPIDEAK

- Elikatzeko garaian Haurreskolak familiak adierazitako pausoak errespetatzen ditu.
- Lau otordu egiten dituen haurra gosalduta etorriko da. Biberoi garaikoak lau otorduz kanpo geratuko lirartekeen haurrak izango dira.
- Titiko haurrak esnea etxetik ekarri behar du.
- Haurra eroso sentitu dadin arropa egokiak eta jantzi-eranzteko errezak izatea eskatzen da.
- Arropa guztia etxetik markatuta ekartzea komeni da.
- Bi jantzi eta bi muda osoak ekartzea eskatzen da.
- **Haurrak sukarra balu etxean geratu behar du.** Haurreskolan sukarra izanez gero gurasoei hots egingo zaie bila etor daitezten.
- **Gaitz kutzakorrek direnean ongi sendatu bitartean haurra etxean egongo da.**

Material zerrenda

- Biberioia eta esnea behar badu.
- Pixohialak.
- Ipurdirako ukendua.
- Txupetea edo zapia (erabiltzen badu).
- 2 muda oso (barrukoa eta gainekoa).

MATRI-KULAZIOA

- **Maiatzaren 5etik - 17ra** iraila-azaroa hasiko diren haurrak.
- **Urriaren 6tik - 18ra** abendua-otsaila hasiko diren haurrak.
- **Urtarrilaren 7tik - 19ra** martxo-ekaina hasiko diren haurrak.

Matrikula eskaerak: ATARIAn aurkeztu behar dira edo telematikoki www.andoain.eus webgunean.

Ate irekiak

16:30etan.

- Maiatzaren 5ean eta 12an.
- Urriaren 6an eta 13an.
- Urtarrilaren 7an eta 12an.

Dokumentazioa

- Eskoera fitxa beteta.
- Aurreko urteko errenta aitopenen kopia edo jasotako diru sarrera gordinen aitopene ziurtatua (aitarena eta amarena).
- Haurrak bere adinerako txertoak dauzkola egiaztatzen duen ziurtagiri medikua. Zaintza berezia beharko balu, alergiak, intolerantziak eta bestelakoak, bertan jasoko dira.
- Famili liburuaren kopia (haurra azaltzen den orriarena).
- Famili ugariaren tituluaren kopia, izanez gero.
- Andoainen erroldatuta ez balego, elkarbizitza ziurtagiria.



ORDUTEGIA

Irailetik uztaileira, astelehenetik ostiralera, 07:15etatik 17:30etara.

Sarrera ordua 10:00ak bitartean egongo da.

Haurrak ez dira haur eskolaren barruan 8 ordu baino gehiago egongo.

KUOTA

Galardi Udal Haurreskolako jantoki-zerbitzuaren hileko kuota **123,36€** izango da. 11 hilabetetan.

6 hilabete azpiko haurrentzat haurreskola erabat dohakoa da! (14. astetik 6 hilabete bitartekoa).

Haurren onarpenaren ebazpenaren jakinarazpena jasotakoan hilabete baten **kuotaren erdia** kobratuko da, eta hau ez da itzuliko, nahiz eta haurra ez hasi.

HOBARIAK

- Galardi Udal Haurreskolara doan bigarren eta hurrengo seme-alabaren ordainsariaren %20.
- Familia-ugariaren kasuan:
%30 (3 seme-alaba).
%50 (4 seme-alaba).
%80 (5 seme-alaba edo gehiago).
- Guraso bakarreko familiak:
%15 (1 seme-alaba).
%30 (2 seme-alaba edo gehiago).
(Familia-liburuaren kopia aurkeztu beharko dute matrikula-eskaerarekin eta/edo hobariarekin batera).
- Desgaitasuna duten pertsonak dituzten familia eta bizikidetzak unitateak:
%30 (guraso edo seme-alaba desgaituak dituzten familiak).
%50 (bi guraso edo seme-alaba edo gehiagok desgaitasuna dituzten familiak).
(Desgaitasun-ziurtagiriaren kopia aurkeztu beharko dute, matrikularen eta/edo hobariaren eskaerarekin batera).

MURRIZKETAK

Bazkari deskontua (**3,08 euro/egunean**) justifikaturiko arrazoiarengatik, astebetekoa baino luzeagoa denean. Eskaerak ATARIAN aurkeztu behar dira.

Asistentzia falta idatziz jakinaraziko da, eta oporren kasuan aldeztu aurretik.